El 26 de noviembre se llevó a cabo una concentración ante la cárcel de Martutene en defensa de un modelo público de instituciones penitenciarias. Asimismo, los/as concentrados/as denunciaron el déficit estructural de personal que sufren las prisiones, situación que está conduciendo a una situación de deterioro absoluto y de retroceso en las condiciones laborales de trabajadores/as.

Jaurlaritzak Prebentzio eta Sute Itzalketa eta Salbamendurako legea aurkeztu du, langileen parte-hartzerik gabe

Eusko Jaurlaritzak aurreproiektua aurkeztu du eragindako langileen

eta beraien ordezkariekin eztabai-datu gabe, eta zerbitzuen beharrak zeintzuk diren entzun gabe.

Aurreproiektuan suhiltzaileen eta sute itzalketa eta salbamendu eki-poetako langileei zuzenean eragingo dien neurriak aurkezten dira, bai beraien lan egiteko moduan eta baita beraien lan baldintzetan ere.

Anbulantzien esleipena, zerbitzuaren eta lan-baldintzen kaltetan

ELAk ambulanzien esleipenerako Eusko Jaurlaritzak ezarri dituen baldintzak salatu nahi ditu. Negoziazio kolektiboko arduradun Joseba Villarreak azpimarratzen duenez, "ambulantzien esleipena erabakiko duena preziorik merkeena izango da, ez zerbitzuaren kalitatea, jarduera honetan hori edozein pertsonarentzat hil ala bizikoa den arren. Izan ere ezin dugu ahaztu gu guztion osasunarekin zerikusia duen larrialdi zerbitzuak eskaintzen duen arreta baten inguruan mintzo garelako. Honek ondorio larriak izango ditu: zerbitzuaren eta lan-baldintzen okertzea".

ELA denuncia el cierre de la Clínica del Pilar de Donostia

La Clínica del Pilar (del grupo IMQ) anunció por la prensa su intención de cesar la actividad y el cierre de las instalaciones. Con posterioridad, la dirección del centro convocó al Comité de Empresa para el inicio del período de consultas. ELA denuncia que este centro, que ha generado enormes beneficios durante años, no ha realizado ninguna inversión significativa, ha ido eliminando servicios que eran muy rentables y se ha ido cargando de enormes costos salariales improductivos contratando a ex-cargos de Osakidetza y duplicando puestos de trabajo que han lastrado la cuenta de resultados.



Haurreskolen doakotasunaren alde » ELA-Irakaskuntzako kideek Partzuergoko Haurreskoletako egoeraren inguruko txostena aurkeztu du. Azkeneko hiru urteak hartzen baditugu, 2012-2014 urte epea, jaitsiera %20koa litzateke-ela jaso-tzen du txostenak. Jaitsiera hori zorrotz aztertzerako orduan matrikulazio berrietan nabaritzen da bereziki, hau da matrikulatzen diren 0-1 urteko haurretan. Adin tarte honetan, 2012tik 2014ra 722 haur gutxiago matrikulatu dira, hau da %40 gutxiago. Matrikulazioaren beharakadan zerikusi zuzena du langileria sufritzen ari den etengabeko eskubideen galerak. Hortaz, ezinbestekoa da haurreskolen doakotasuna.

La OPE propuesta por del Departamento de Educación es irrisoria »


En la reunión de la mesa sectorial de Funcionariado Docente celebrada el 5 de noviembre, los responsables del Departamento de Educación anunciaron una convocatoria de Oferta Pública de Empleo para 275 plazas. En opinión de ELA, la propuesta es irrisoria. "Hay que tener en cuenta que de las 5.100 plazas acordadas en 2009 en la Mesa General para reducir la eventualidad y precariedad al 8%, 3.044 no han sido convocadas aún. A estas plazas se deben añadir las más de 1.500 plazas que quedarán vacantes por jubilación entre 2013 y 2015".

Heziberri 2020 LOMCE ezartzeko tresna bihurtu du Eusko Jaurlaritzak »

Heziberri 2020ren baitako curriculum dekretu zirriborroek argi uzten dute Eusko Jaurlaritzak men egiten diola Wertzen hezkuntza erreformari. ELAk Urkullu lehendakariari eta Uriarte sailburuari eskatzen die Heziberri 2020ren curriculum dekretu hauek erretira ditzatela edo goitik behera alda ditzatela.

Hezkuntza Sailaren curriculum zirriborroek LOMCEk aurreikusten dituen "errealidateak" eta hezkuntza erreforman ezartzen diren ebaluazio irizpideak bere egiten dituzte. Ondorioz euskal hezkuntza sistemaren, curriculumaren eta pedagogiaren eta edukien gaineko erabateko kontrola espainiar estatuaren esku uzten dute. Honen baitan, konpetentzietan oinarrituriko pedagogia eta curriculumaren proposatzeak bere zentzu osoa galtzen du. Izan ere LOMCEk ezartzen duen estatuaren kontrolpeko ebaluazio sistemak eze-rezean uzten baitituzte horrelako planteamenduak.





Urteroko hitzordua klima aldaketarekin

AURTEN ERE IRITSI DA COP20A, ETA ZAHARRAK BERRI GOIBILERAN. KLIMA ALDAKETAREN AURREAN NEURRI ERAGINKORRIK HARTU GABE JARRAITZEN DUTE

EEUU y China anuncian medidas insuficientes para reducir emisiones. Son los principales generadores de emisiones y no tienen intención de hacer nada antes de 2025



dutenek sufritzen dituzte gehien, gizarte eta herrialde pobreenek alegia.

- Baditugu klima aldaketari aurre egiteko eta gizakiaren garapen ekonomikoa ahalbidetzeko baliabide eta irtenbideak, baina aldaketarako borondatea behar da.

Behin txosten hau ezagututa, badirudi herrialde ezberdinetako gobernuek ezin izango diotela muzin egin klima aldaketari aurre egiteko benetako neurriak hartzeari.

Orainsu ezagutu dugu Ameriketako Estatu Batuak (AEB) eta Txinak beraien murrizketen inguruan hartu dituzten konpromisoen inguruko berria. Badirudi mundua salbatzeko akordio bat sinatu dutela, baina oso bestelako neurriak iragarri dituzte:

- Txina 2030an hasiko da emisioen benetako murrizketekin, baina ez du zifrarik zehaztu. Data horretan energia iturrien %20a "zero karbono" deiturikoa izango da. (Zero karbonok ez du esan nahi berriztagarria, zentral hidroelektriko handiak eta nuklearrak ere talde honetan sartzen baitira).

- AEBk 2025erako emisioak %26-28 artean murriztuko ditu 2005ekoekin alderatuta. Obama Kiotoren arabera duela bi urterako egin beharreko emisio murrizketa baino zertxobait gehiago egitera konprometitzen da 2025erako, hau da, orain arteko emisio murrizketen erritmoa mantendu soilik egingo du, horretarako frackin-ga erabiliz.

Bi herrialde hauek mundu mailako emisioen %45aren arduradun dira, eta ez dute asmorik aurrera pausu garrantzitsurik emateko 2025 aurretik. Gobernuarteko negoziazioek porrot egin dute.

Azken urteetan jarraitzen ari garen prozesuaren helmuga Parisko COP21a izango da. Klima

aldaketari aurre egiteko herrialde bakoitzak hartuko dituen konpromisoak bilduko dituen eta loteslea izango den akordioa sinatu behar da Parisen. Hasiera batean 2009ko Kopenhageko gailurra jarri zen helmuga gisa, baina gobernuen arduragabekeriak sei urtez atzeratu du prozesua. Zorritzarez, herrialde gehienetako gobernuek orain arteko jarrera berarekin jarraitzen dute, eta Limakoa ez da izan Kopenhage, Durban edo Varsoviako gailurren ezberdina. Alderantziz, Limako COP20a Parisera bidean aurrerapausorik ematen ari ez denaren konfirmazioa izan da. Baina nola uste dute Parisen zerbait egitea, urtebete bakarrik geratzen denean oraindik ez badituzte mahai gainean klima aldaketaren aurkako neurri zehatz eta zorrotzik jarri?


Ez dugu esperantzarik Parisen ezer egingo dutenik. Beraz irtenbidea geuk bilatu behar diogu egoera honi. Nola? Inguruan ditugun alternatiba txikiak egunerokotasunean praktikara eramanez: energia berriztagarria kontsumitzeko kooperatibak, kontsumo taldeak, hondakinak 100% birziklatzea, lanpostu berdeak... Gobernuen arduragabekeriak aldaketa geuk egitera behartzen gaitu, eta ELAn ere horrela egingo dugu. Bai gure eguneroko lanean, baita klima aldaketaren aurkako politika zehatzak exijituz, orain arte bezala. Gure esku dagoena egin behar dugu, denon artean, badaudelako klima aldaketari geuk aurre egiteko alternatibak.

» AINHARA PLAZAOLA

Urteroko hitzordua iritsi da aurten ere, Nazio Batuen Klima Aldaketaren inguruko Gailurra.

Oraingoan Liman (Peru) ospatu da COP20a. Baina aurten badago besterik aipatzeko. Gailur honen bezperan, Klima Aldaketaren inguruko Adituen Gobernuarteko Taldeak (IPCC) bere Bosgarren Ebaluazio Txostena publiko egin du (talde hau da Nazio Batuak aholkatzen dituen klima aldaketaren gaien). Txostena benetan kezkarria da. Bost urtetan zehar jasotako datuetatik ondorio nagusi hauek atera dituzte:

- Gutxienez duela 800.000 urte baino atmosfera eta ozeanoak beroagoak, izotz gutxiago, itsaso maila gorago eta CO2 mailak inoiz baino altuagoak dira.
- Gizakiak eragindako berotegi efektuko gasak eta beste eragile batzuk izan dira XX. mende erdialdetik antzematen den klima aldaketaren errodunak.
- Klima aldaketaren eraginak dagoneko antzematen dira, baina mundu osoan ikusten diren arren, eragin ez

DESDE IPARRALDE
IPARRALDETIK

«Alda»rekin aurrez ikusi

MANU ROBLES-ARANGIZ FUNDAZIOA DUELA 10 URTE EZARRI ZEN IPAR EUSKAL HERRIAN; HORI OSPATZEKO FESTA ANTOLATU ZEN AZAROAREN 1EAN BAIONAN



› XABIER HARLUXET

Iparraldean ospatu duen 10. urtemugaren karietara, Manu Robles-Arangiz Fundazioak erabaki du *Alda* izeneko trukada, azterketa, hausnarketa eta formakuntza talde baten plantan emaiterat. Talde hori MRA Fundazioaren ibilbide eta filosofian, logika abertzale, aurrerakoi eta idekian, bortxa-ezaren ildoan, egiteko molde erradikal eta pragmatikoan, bai eta independentean beren burua kokatzen duten guziei idekia da. Bere 10. urtemugaren ospakuntzaren karietarat ere *Burujabetza Estatu guzietan* hitzaldi-eztabaida, antolatua izan da larunbatean, azaroaren 1an, arratsaldean, MRA Fundazioaren Baionako egoitzan, abertzale mugimenduaren oinarriko kontzeptuen (burujabetza, autodeterminazioa, independentziaren...) ber-ikertzeko XXI. mendeko testu inguruan.

Joan den azaroaren lehenean, Manu Robles-Arangiz Fundazioaren 10. urtemugaren ospakuntzarako hasi ziren goizaldean bilkura batekin. Bertan, 45 pertsonak parte hartu zuten eta beren iritziak partekatu zituzten Manu Robles-Arangiz-ilekua den *Alda* deitutako trukada, azterketa, hausnarketa eta formakuntza taldearen sortzeari buruz. Jakinez zein garrantzitsua den jada martxan diren eta etortzekoak diren aldaketen konduan hartzea eta aurrez ikustea, *Alda* ren plantan emaita beharrezkoa bezala azpimarratua izan da parte hartzaileetaz. Talde hori idekia izanen da MRA Fundazioaren ibilbidean eta filosofian kokatzen diren guziei, hots, logika abertzale, aurrerakoi eta idekian, bortxa-ezaren ildoan, egiteko molde erradikal eta pragmatikoan, bai eta independentean beren burua kokatzen duten guziei.

Goizeko elkarrizketei jarraipena eman dien bazkaritik landa, *Burujabetza Estatu guzietan* hitzaldi-eztabaida hasi zen, burujabetza, autodeterminazioa eta independentzia bezalako abertzale mugimenduaren oinarriko kontzeptuen ber-ikertzeko XXI. mendeko testu inguruan.

Arratsaldeko 15:00etan, Eskozian, Katalunian eta Euskal Herrian diren autodeterminazio prozesuen hausnarketa


egin zuten Eneko Bidegain kazetariak, Amaia Muñoak -ELA sindikatuaren izenean-, Angel Oiarbidek -Gure Esku Dago-ren ikuspuntutik- eta Mario Zubiagak -EHUko irakaslea-. Horren bidez, 80 pertsonatik goitik Europako esperientzia ezberdinetaz ikasi dute, eta Euskal Herrian bertan martxan ezarriak izan diren burujabetzari buruzko pausu ezberdinak berrikusteko parada ukan ere -Lizarran Garaziren garaiekoetik, duela 15 urte, gaur egun Gure Esku Dago-renetara-. Parte hartzaileek argi utzi zuten burujabetza prozesu batek abertzaletasuna guttiengoan den lurralde batean -Iparraldean eta Nafarroan- ezaugarri ezberdinak dituela abertzaletasuna gehiengoan den kasuekin -Erkidego Autonomoa- konparatuz. Ber maneran azpimarratua izan zen herritarrek garrantzia handia emaiten diotela autodeterminazio proiektu batean, atzetik agertzen edo marratzen den jendarte ereduari. Azkenik, mugimendu sozialen eta alderdi politikoen bete beharren ezberdintasunak azpimarratuak izan ziren -Eskozia, Katalunia eta Euskal Herriaren kasuan- ikusteko nola gaitu frantses eta espainiar konstituzioaren oztopo nagusia: biek diote bakarrik frantses eta espainiar populak kontsultatuak izaiten ahal direla burujabetzari dagokionez.

Gero, 17:00etatik goiti, mundializazio neoliberal baten eta krisi sozial eta ekologiko baten garaian euskal burujabetzari buruzko gogoeta jorratua izan zen. Joseba Azkarraga soziologoak bertan esplikatu zuen "aldaketa klimatikoak erakusten digula gure jendartearen antolaketa, berotegi efektuzko gas gehiegi isurtzen dituen, aldatu beharko dela", eta horrez gain "krisi energetikoak inposatuko digula energia fosilen dependentzia duen gure bizi moldearen aldatzea". Bere aldetik, Michel Berhocoirigoin-ek azpimarratzen zuen autonomia izaiteko, laborantzak iraunkorra izan behar zuela eta burujabetzak ere behar zuela iraunkortasunaren kontzeptuarekin gogoetatua izan, dependentzien mugatzeko eta lurralde bakoitzaren potentzialaren lantzeko eta trukaketen bidez indartzeko, autonomia ez delako autarkia.

Berriz ere elkarrizketak luzatu ziren MRA Fundazioaren egoitzan antolatua izanen da zintzur bustitze eta kilikatze denboran. Bertan elgarrekin ospatzen zelarik MRA Fundazioak Iparraldeko mugimendu abertzale eta aurrerakoiaren zerbitzuko eraman duen 10 urteko lana.

La Fundación Manu Robles-Arangiz ha cumplido 10 años en Iparralde; por ello, el 1 de noviembre se celebró un acto de formación y fiesta en Baiona

LEGEAREN BUELTAK PAGINAS JURIDICAS



CALENDARIO LABORAL 2015

Fiestas retribuidas y no recuperables Jaiegun ordaindu eta berreskuraezinak

- 1 ▶ Urtarrak 1 de enero:**
Urte berri / Año nuevo.
- 2 ▶ Urtarrak 6 de enero:**
Erregeak / Reyes.
- 3 ▶ Martxoak 19 de marzo**
Jose Donea / San José.
- 4 ▶ Apirilak 2 de abril:**
Ostegun Santua / Jueves Santo.
- 5 ▶ Apirilak 3 de abril:**
Ostiral Santua / Viernes Santo.
- 6 ▶ Apirilak 6 de abril:**
Bazko Astelehena / Lunes de Pascua.
- 7 ▶ Maiatzak 1 de mayo:**
Langileen eguna / Fiesta del Trabajo.
- 8 ▶ Uztailak 25 de julio:**
Donejakue / Santiago.
- 9 ▶ Abuztuak 15 de agosto:**
Andra Mari eguna / Asunción.
- 10 ▶ Urriak 12 de octubre:**
Pilarika / El Pilar.
- 11 ▶ Abenduak 8 diciembre:**
Sortzez garbiaren eguna / Inmaculada.
- 12 ▶ Abenduak 25 diciembre:**
Eguberri / Navidad.
- 13 ▶ LURRALDEETAKO JAIEGUNAK/FIESTAS TERRITORIALES**
 - * ▶ Apirilak 28 de abril:**
Araba. Prudentzio donea / San Prudencio.
 - * ▶ Uztailak 31 de julio:**
Bizkaia eta Gipuzkoa
San Inazio / San Ignacio.
 - * ▶ Abenduak 3 de diciembre:**
Nafarroa.
San Franzisko Xabierkoa / San Francisco Javier.

14 ▶ HORREZ GAIN/ADEMÁS

Gainera, beste jaiegun bat, **tokian tokikoa:** Además, otro día con carácter de **fiesta local.**

CONSULTORIO JURIDICO

Modificación de la jornada de trabajo

▶ HAIMARKORTABARRIA

Compañeros del sindicato en Nafarroa trasladan consulta al gabinete sobre el planteamiento de una empresa navarra del sector del metal en la que su dirección, que dice acogerse a lo previsto en el art. 34.2 ET, plantea dejar de trabajar 4 días laborables en diciembre y compensar esas jornadas trabajando 2 días en semana santa y 2 días en verano del año que viene. Pretenden aclarar si la empresa actúa de manera ajustada a la ley o si, por el contrario, debiera acudir a lo previsto en el Convenio Colectivo del sector del Metal de Nafarroa o al procedimiento de inaplicación de convenios colectivos estatutarios.

La consulta afecta directamente a la jornada de trabajo regulada en el artículo 34 ET, una de las materias reformadas por el gobierno español en 2012. Aquella reforma, de alguna manera, institucionalizó la jornada irregular de trabajo, otorgando al empresario la posibilidad de distribuir de manera irregular a lo largo del año el diez por ciento de la jornada, posibilidad que sólo podrá matizarse bien por convenio colectivo bien por acuerdo entre la empresa y la representación de los trabajadores. De ahí, la formulación de cláusulas sobre la necesaria distribución regular de la jornada que ELA ha elaborado para su inclusión en aquellos convenios en los que resulte posible.

La literalidad de la norma pone de manifiesto que la calificación de la distribución de una jornada como regular o irregular depende del número de horas semanalmente prestadas, sin atender a la jornada diaria. Así, por ejemplo, en una distribución regular de la jornada, si todas las semanas se trabajan como máximo 40 horas, la distribución irregular implica alteraciones al alza o a la baja sobre esas 40 horas semanales.

Es importante no confundir jornada con horario.

Para modificar el horario de un trabajador/a habrá que acudir bien al procedimiento de modificación sustancial de condiciones de trabajo –si el horario se encuentra regulado en contrato de trabajo, en acuerdos o pactos colectivos o disfrutado en virtud de una decisión unilateral del empresario de efectos colectivos– bien al procedimiento de inaplicación – si el horario se regula en


el convenio colectivo–. Para resolver la duda planteada deberá consultarse el convenio de la empresa afectada –que en este caso tiene convenio propio–, para ver si contiene alguna previsión con respecto a la distribución irregular de la jornada y si es así, analizar en qué términos se regula la misma.

Pues bien, el convenio de la empresa en cuestión contiene una regulación bastante exhaustiva sobre el tiempo de trabajo y las vacaciones pero nada prevé sobre la distribución irregular de la jornada. Es en estos casos de ausencia de previsión sobre distribución irregular de la jornada en los que entra en juego la posibilidad de que el empresario decida unilateralmente su distribución irregular, con el límite del diez por ciento de la jornada de trabajo.

La distribución irregular de jornada impulsada por la empresa – cuatro días– no alcanza a ese diez por ciento de jornada establecido como límite así que no se ve posibilidad jurídica para oponerse a la misma. Esa decisión empresarial unilateral deberá comunicarse al trabajador con una antelación mínima de cinco días y, salvo pacto en contrario, las diferencias derivadas de esa distribución irregular de la jornada deberán ser compensadas en el plazo de doce meses desde que se produzcan.

Por último, es preciso aclarar que en este caso– y a pesar de que el convenio colectivo de esta empresa incluya una cláusula por la que las materias no recogidas en el mismo serán reguladas por las normas convencionales vigentes– no resulta aplicable supletoriamente en convenio colectivo del metal de Navarra, ya que podría incurrirse en un espiguelo prohibido por la jurisprudencia, que exige una regulación inexistente o manifiestamente insuficiente. Tampoco podría alegarse ante la empresa la necesidad de acudir al procedimiento de inaplicación del convenio del artículo 82.3 ET, ya que ese supuesto es distinto de una distribución irregular de jornada, principalmente porque la inaplicación de jornada es una alteración de la jornada de trabajo temporal, basada en unas determinadas causas objetivas (económicas, técnicas, organizativas o productivas) y que no es objeto de compensación por parte del empresario.

LAN OSASUNA SALUD LABORAL



Haurdunen eskubideak zaindu ditzagun!

EMAKUMEEK ARAZO HANDIAK IZATEN DITUZTE ENPRESEK EDO MUTUALITATEEK BEREN LANPOSTUETAN DITUZTEN ARRISKUAK ONARTZEKO

› LEIRE HEREDIA



Lan osasun arlotik aipatu dugu noizbait emakume batek haurdunaldian zehar edo edoskitzean lanpostuan arriskuren bat balu zer nolako pausuak eman behar dituen bai enpresan eta baita mutualitatean ere: dagokion momentuan, eta arrisku egoeran egonik, lanpostuaren moldaketa, lanpostuaren aldaketa edo lanaldiaren etetea, erditu arteko epean mutualitateari prestazioa eskatzeko aukera, hain zuzen ere.

Sektore askotan, feminizatutako sektoreetan are gehiago, haurdun dauden emakumeek arazo handiak izaten dituzte enpresek edo mutualitateek beren lanpostuetan dituzten

arriskuak onartzeko, eta behin onartu eta gero, lanpostua aldatzeko neurri egokiak hartzeko. Haurdunaldian zehar emakumeak denbora mugatua du guzti honi aurre egiteko eta horregatik argi izan behar ditugu dauzkagun aukerak.

Gogoratu beharra dago, lehenik eta behin, bi egoera ezberdin behar ditugula, askotan nahastu egiten baitira.

Lehenengoa da haurdun egonda zure lanpostuan arriskuren bat izatea, adibidez; enpresan produktu kimikoren batekin lan egitea, pisuak altxatu behar izatea, zarata edo bibrazioekin lan egitea, gauez lan egitea... Hau da, haurdunaldian edo edoskitze prozesuan eragin negatiboak izan dezakeen egoera bat eguneroko bizitzeari.

Bigarrena, eta aurrekoarekin zerikusirik ez duena, zera litzateke: emakume batek bere egoera fisikoagatik arazoren bat izatea haurdunaldian zehar, baina ez duena zerikusirik lanpostuaren arriskuekin.

Haurdun dagoen emakumeak bakarrik lehenengo kasuan egonda eskatu dezake Prebentzio Legean jasotzen dena.

Prebentzio Legeak 26.artikuluaren amatasunean zehar enpresak jarri beharreko babes neurriak aztertzen ditu. Berton argi uzten du enpresak ebaluatu egin behar dituela haurdun dauden emakumeak dauden edo egon daitezkeen lanpostu guz-

tiak. Hau da, lanpostu guztien ebaluaketa generiko berean, eguneratu beharko litzatekeen ebaluaketa horretan, haurdun edo edoskitze egoeran dagoen emakume batek lanpostu horretan lan egiten jarraitu ahal duen ala ez esan behar du zehazki. Puntu hau ebaluaketan jasotzea oso lagungarria da emakume bat haurdun gelditzen den momentuan. Horrela ez du denborarik galduko enpresari, eta enpresak prebentzio zerbitzuari, ebaluaketa berria eskatzen.

Mutualitateen arduragabekeria. Behin ebaluaketaren ondorioetan zenbait laspostutan haurdun edo edoskitzen dagoen emakume batek arriskua izan dezakela jasotzen bada, enpresak egoera horren aurrean neurri egokiak hartu beharko ditu. Neurriak hiru ataletan sailka ditzakegu:


- Lanpostua egokitu, bai lan baldintzak edo lanorduak, arriskurik ez egoteko.
- Arrisku gabeko lanpostu berri batera mugitu emakumea.
- Aurreko biak posible ez badira, enpresak egindako ziurtagiri batekin, Gizarte Segurantzako medikuaren txostenarekin eta mutualitatearen txostenarekin, emakumea haurdunaldian zehar arriskua izateagatik, lanaldia etetera pasatuko da eta mutua %100ko prestazioa ordainduko dio.

Ez da erraza izaten mutualitateek arriskuren bat dagoela onartzea, baina lehen esan bezala, prebentzio zerbitzuak emakumearen lanpostuan haurdun egotekotan ezin duela lan egin esateak asko laguntzen du, batez ere epeetan. Hala ere, ikusten ari gara zera da: mutualitateek behin arriskua onartuta, emakumeari geroz eta beranduago ematen diola lanaldia eteteko aukera. Orain dela urte batzuk 20. astearen inguruan izaten zen, baina gaur egun 26 edo 27.enean izaten da, kasuaren arabera.

Guzti honengatik, enpresa askotan haurdunaldirako eta edoskitze prozesuetarako prozedura berezi bat egitea erabakitzen da, emakumeek egoera horietan arazorik izan ez dezaten. Berton, lan zentru horretan emakume haurdun bati kendu beharreko arriskuak jasotzen dira, eta arrisku gabeko lanpostuaren zerrenda bat ezartzen da. Lan hau prebentzio delegatuen laguntzarekin egin behar da, emakumea arrisku gabeko gune-etara pasa dadin lehenbailehen. Beste lantoki batzuetan, ordea, emakumea haurdun dagoela esan eta berehala mutualitate bideratzen da, enpresan arrisku gabeko tokirik ez dagoelako erabaki delako enpresa eta delegatuen artean.

Azken prozedura hau da haurdun dauden emakumeen osasuna zaintzeko biderik onena, gauza guztien gainetik osasunaren zaintza egon behar delako.

Empresas y Mutuas cada vez ponen más trabas para reconocer los riesgos laborales, sobre todo a las mujeres



Presupuestos 2015: PNV y UPN insisten en los recortes

AUNQUE EN LA CAPV SE VAN A APROBAR LOS PRESUPUESTOS Y EN NAVARRA NO, AMBOS GOBIERNOS SIGUEN LA MISMA POLÍTICA DE PRIORIZAR LOS RECORTES AL GASTO SOCIAL PARA PAGAR LA DEUDA Y EL TAV

PNVk eta UPNk nahiago dute 1.425 milioi euro zor publikoan gastatzea eta murrizketak egiten jarraitzea, zerga-erreforma bat egitea baino

Gobierno Vasco adelanta para la construcción del tren de alta velocidad pero que el ejecutivo español le devuelve con posterioridad). Esta cantidad supone el 15% del PIB.

A lo largo de los últimos años la apuesta del Gobierno Vasco en relación al gasto público ha sido el recorte. Centrándonos en los años de la actual fase de crisis económica y, por tanto, descontando el efecto de la misma, podemos ver que el ejecutivo vasco ha seguido disminuyendo el gasto público con el argumento de la crisis. En concreto, el gasto público ha pasado de representar un 15,5% del PIB en 2009 al 15% en 2015. ¿Qué significa esto? Que el Gobierno Vasco gastará 327,8 millones de euros menos de lo que debería para mantener el esfuerzo que hizo en 2009.

El Gobierno de Navarra, en el Proyecto de Presupuestos no aprobado, había previsto para 2015 un gasto 67,4 millones inferior a la previsión de 2014, que es de 3.816,8 millones de euros. Más allá de que este presupuesto no haya salido adelante, esto muestra cuál es la intención del Gobierno de UPN, seguir con los recortes. Desde 2009 a la previsión de 2014 se han recortado más de 170 millones de euros (237,7 millones si lo comparamos con el presupuesto no aprobado de 2015).

Y es que el hecho de que los presupuestos de Navarra no hayan sido aprobados, y estén prorrogados desde 2012, no quita para que el Gobierno de Barcina haya llevado a cabo recortes y modificaciones presupuestarias. Entre otros, se



› IÑAKI ZABALETA

La situación en los dos territorios es diferente ya que en la CAPV se van a aprobar los presupuestos y en Navarra se han rechazado por tercer año consecutivo, por lo que en 2015 se aplicarán los presupuestos prorrogados del 2012. No obstante, estas diferencias no se dan a la hora de realizar el gasto. Los gobiernos de Urkullu y Barcina siguen priorizando el pago de la deuda y el TAV, aunque sea a costa de los recortes en sanidad y educación.

El presupuesto del Gobierno Vasco viene condicionado por dos decisiones políticas previas: las previsiones de recaudación para ese año acordadas por las 3 Diputaciones Forales (gobernadas por el PNV, PP y EH Bildu) y el Gobierno Vasco en el Consejo Vasco de Finanzas

(CVF), que suponen renunciar a abordar una política fiscal diferente, y el acuerdo alcanzado entre el Gobierno Vasco y el Gobierno de Rajoy para que el déficit público se reduzca del 1% del PIB en 2014 al 0,7% en 2015.

Con ello, el gasto del proyecto de presupuestos del Gobierno Vasco asciende a 10.288,4 millones de euros (cifra que se obtiene de restar a los 10.639 millones de euros presentados por el ejecutivo los 350,5 millones de euros que el

Eusko Jaurlaritzak 327,8 milioi euro gutxiago gastatuko du, 2009an egin zuen ahaleginaren mailari eusteko beharko zituztenak baino

ha recortado en educación la partida dirigida a comedores, el transporte escolar, el gasto destinado al euskera, o la universidad (mientras aumentan las subvenciones a la enseñanza privada 6,5 millones, un 5,2%). El gasto en salud también se recorta, como la atención primaria o la asistencia especializada. También se ha recortado el gasto en la gestión del medio ambiente, la cooperación internacional o las ayudas para la atención de servicios personales.

PNV y UPN priorizan el pago de la deuda sobre el gasto social.

De forma que al recorte de presupuesto hay que sumar que cada vez se destina una mayor parte al pago de la deuda. Por tanto, la disponibilidad real del Gobierno Vasco para poder destinar recursos a las materias de su competencia ha caído mucho más que los 327,8 millones que han recortado en el presupuesto. El gasto en deuda pública ha ido creciendo de forma exponencial a lo largo de los años, como consecuencia del incremento tanto en amortización, como en intereses. Los 83,6 millones de euros del ejercicio 2009 se han multiplicado casi por 12, hasta alcanzar un gasto en deuda de 989,4 millones de euros en 2015. De esta forma, el peso de la deuda en el total de gasto del Gobierno también ha crecido de forma importante, pasando del 0,8% en 2009 al 9,6% en 2015.

Nafarroan zor publikoa 2009ko gastu osoaren %0'9 izatetik 2015eko %11'6 izatera igo da

En Navarra sucede lo mismo. Mientras se recorta en gastos esenciales, el dinero público que se destinara a pagar la deuda en 2015 será de 436,4 millones de euros, 46,9 millones más que en 2014. Desde 2009 este gasto se ha incrementado en 401,7 millones de euros, de 34,7 millones a 436,4. Así, la deuda pública ha pasado de suponer el 0,9% del gasto total en 2009, al 11,6% en 2015.

A ello habría que sumar el peaje en la sombra instaurado por el Gobierno de UPN para pagar determinadas obras públicas. Esto consiste en que la construcción y financiación de una obra la haga una empresa privada, y el Gobierno pague por su utilización. Así la administración evita el endeudamiento a corto plazo y maquillar las cuentas, si bien a largo plazo el gasto es mucho mayor. El presupuesto para 2015 destinado a pagar el peaje en la sombra es de 73,5 millones de euros, 8,1 millones más que la previsión de 2014. Desde 2009 este gasto se ha incrementado en 30,1 millones de euros.

El TAV también es un gasto indiscutible para los gobiernos de Urkullu y Barcina.

El Gobierno Vasco tiene una dotación presupuestaria para el TAV en el 2015 de 350,5 millones de euros (le será devuelta por el ejecutivo español). Esta cantidad supone un incremento equivalente a 276,5 millones de euros en relación al 2009. El TAV sería, de esta forma, excepción a los recortes que experimenta el conjunto de las materias. Al igual que en Navarra, donde desde 2009 a 2015 se van a gastar 203,1 millones de euros.

Está claro que el PNV y UPN siguen con la misma política de recortes que están produciendo un deterioro de la cobertura y calidad de los sistemas público de sanidad o educación, favoreciendo el aumento de la pobreza y la desprotección social.

La política presupuestaria y fiscal depende de las prioridades de quienes nos gobiernan.

El PNV y UPN prefieren gastar 1.425 millones de euros en deuda pública y seguir haciendo recortes a llevar a cabo una reforma fiscal y una política presupuestaria que anteponga los intereses de la gente. La falta de recursos públicos, al igual que los recortes en el gasto social, son una opción política: la opción de Urkullu y Barcina.

LABURREAN

EUROPAN BAINO 1.435,8 MILIOI GUTXIAGO BIDERATZEN DIRA OSASUN PUBLIKORA

Urkulluren Gobernuak 3.390,5 milioi euro bideratuko ditu 2015ean osasunera, BPGd-aren %4,9a. Honek 2009tik BPGd-aren 0,4 puntu gutxiago suposatzen ditu, 242,2 milioi euro adina. Nafarroan 2014ko gastua 896,4 milioi euroakoa izango da, BPGd-aren %4,9a. Hau da, 2009an baino 67,9 milioi euro gutxiago.



ELGEko herrialdeekin alderatzen badugu gastua, Hego Euskal Herrian osasun publikora bideratzen den dirua inguruko herrietako txikienetakoa dela ikusiko dugu. Batz bestekoa 2012an %6,7a izan den bitartean, Nafarroan BPGd-aren %5,1a bideratu da, eta %5a EAEn.


Honek 294,1 milioi euroko eta 1.141,7 milioi euroko alde adina suposatzen du.

HEZKUNTZAKO GASTUAN ERE EUROPAREN ATZETIK

EAEk 2015ean 2.561,8 milioi euro bideratuko ditu hezkuntzara, BPGd-aren %3,7a. Hau da 2009an baino BPGd-aren 0,5 puntu gutxiago, 362 milioi euro gutxiago suposatzen du. Nafarroak 574,4 milioi euro gastatuko ditu 2014an, BPGd-aren %3,1a, eta 2009an baino 80,9 milioi gutxiago.

ELGEko batz bestekoa %5,6koa izan da 2011n, EAEn baino BPGd-aren 1,6 puntu altuagoa eta Nafarroan baino 2,2 puntu gehiago. Honek 1.090,1 milioi euro gehiago eta 414 milioi euro gehiago gastatu beharko lirakeela EAEn eta Nafarroan suposatzen du ELGEko batz bestekora iristeko.





Hazita daude

› GORKA QUEVEDO

1989ko azaroaren 9a, 18:00ak jo berriak. Alemaniako Errepublika Demokratikoko gobernuak iragarpen bat egiten du: Alemaniako Errepublika Federalera igarotzea ahalbidetzen duen legea indarrean jarriko du. Errepublika Demokratikoan agintean zegoen Batasunaren Alderdi Sozialistaren kide Günter Schabowskik eman zuen albistearen berri, telebistaz zuzenean emititu zen agerraldi sonatu batean. Prentsaurrekoa amaitzear zegoela, Italiako ANSA albiste agentziako korrespontsal Riccardo Ehrman-ek legea indarrean noiz jartzen zen galdegin zion Günter Schabowskiri. Legea hurrengo egunean sartzen zen indarrean, baina Schabowskik zalantza airean utzi zuen bere erantzunarekin. "Ab sofort", berehala alemanez.

Gaizki ulertu horren ondorioz milaka izan ziren harresiak Berlinean zehar zituen pasabide ezberdinetara hurbildu ziren lagunak. Azkenean, gaueko 23:00etan, legea indarrean sartu baina ordubehe lehenago, Alemaniako Errepublika Demokratikoko militarrek Bornholmerstraße pasagunea ireki beste aukerarik ez zuten izan, pilotutako jendetza kausa. Historiak liburuei erreparatuz gero, 1989ko azaroaren 9an Berlingo Harresia erori zen. Noski, egun horretan ez zen jausi 155 kilometroko luzera eta lau metroko altuera zuen harresitzarra, baina atzera bueltarik ez zuen zirrikitu bat zabaldu zen bertan. Handik aurrerakoak jakinak dira.

Gertakari horretatik mende laurdena igaro den honetan, agerikoa da kapitalismoaren bozeramaile hegemonikoen gobernu, agintari, intelektual...- esan zigutena guztia-guztia ez esatearren-gezu-

rra zela. Gerra Hotza deitutakoaren amaiera omen zen. Demokrazia liberalaren eta merkatu libreko kapitalismoaren garaipena. Ameriketako Estatu Batuak potentzia hegemoniko bakarra bilakatzen zen mundu mailako ordena polobakarraren hasiera. Bake eta ongizate promesak entzuten ziren neoliberalismoaren ordezkarien ahotik. Ezinezkoa zen olatu horretatik ihes egitea.

Baina, esan bezala, 25 urte geroago egoera iragarri zigutenaren oso bestela-

El TTIP es un ejemplo de que el capital y las multinacionales mandan en la Unión Europea y en los Estados Unidos de América

Pretender que los intereses de las transnacionales estén por encima de los de la ciudadanía es una aberración

koa da. Gerra Hotza ez da amaitu. Ukrainian gertatzen ari dena ikusi besterik ez dago. NATO gero eta herrialde gehiagotan dago, Europako ekialdean egindako zabalkundearen ondorioz Errusia inguratzea lortu duelarik: Polonia, Txekia, Letonia, Lituania, Estonia, Errumania... Urte hauetan, gainera, NATOk argi utzi du ez duela inolako arazorik bere proiektua auzitan jarri dezakeen inolako mugimendurik edo herrialderik txikitzeko Europaren bihotzen, Jugoslavia ohia kasu.

Bake eta segurtasun promesak gezurra zirela frogatu da.

Munduan zehar indarrean dauden gatazken zerrenda ikusi besterik ez dago, gehienak Afrikan eta, batez ere, Ekialde Hurbilean: Irak, Siria, Palestina... Ameriketako Estatu Batuetan armadara bideratutako dirutza biderkatu egin da. Aurrekontu militarra Gerra Hotzaren 'ofizialaren' garaietan baina nabarmen handiagoa da. Pentsa, gastu militarra Nazio Batuen Erakundea osatzen duten gainontzeko 191 estatuen adinakoa izan zen 2010. urtean, bilioi bat dolar pasatxo.

Harresi berriak eraiki dira, edo dagoeneko zeuden asko indartu. Ameriketako Estatu Batuak eta Mexiko banatzen dituen, herrialde horretatik hegoaldera kokatzen diren lagunak Ameriketako Estatu Batuetara sartu ez daitezten; Marokok Sahara mendebaldean eraiki duena; Afrikatik Europara etorkinak etorri ez daitezten Espainiar estatuak Melillan eraikitakoa; Palestinarrek Zisjordanian dituzten lur apurrak bereganatzea helburu duen Israelek eraikitako 748 kilometrotako harresia... Urtero milaka dira harresi horiek igarotzen -edo igaro asmoz- hiltzen diren lagunak, baina hor jarraitzen dute, zutik, tinko, militarrez josiak.

Ongizateari buruz, zer esan. Gutxi batzuen gero eta handiagoa, gainontzeko guztiona gero eta urriagoa denean. Liberalismoa eta merkatu librea aberats gutxi batzuen mesedetan izan da, herritarren erabateko gehiengoaren kaltetan. Kapitalak politika erosi du mendebaldeko herrialdeetan, gero eta zailagoa delarik bata-politika- eta bestea -kapitalk- bereiztea. Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da. Krisian omen gaude, hala diote, baina super-aberatsen kopurua gero eta handiagoa da. Eta politikak uko egin dio bidegabekeria horren aurka egin dezakeen inolako neurririk hartzeari.

Hazita daude, beraz. Handituta. Puztuta. Gobernu ezberdinak euren esanetara egotea lortu dute. Urteak daramatzate kapitalaren interesen aurka egon daitekeen oro zapalduz. Esaterako, langile-mugimendua eta horren inguruan antolatu litekeen defentsa kolektiboa. Azken hamarkadetan izan dugun eskubideen galerari erreparatu besterik ez dago. Egia da azken urteetan prozesu hori bizkortu egin dela, kapitalismoak sortutako azken krisi edo abagune ekonomikoari esker. Baina hemeroteka ikusi besterik ez dago prozesu horren sorburua 70. hamarkadan kokatzeko. (Hala ere ezin dugu ahaztu kapitalaren desarautzea ahalbidetu duten legeak urte batzuk lehenago hasi zirela).

II. Mundu Gerraren ostean modu batean ala bestean kapitalaren eta lan-munduaren artean zegoen nolabaiteko oreka hautsita, eskubideen galera hasi zen: enpleguaren suntsiketa, prekarizazioa, erretiroaren atzeratzea, lanaldiaren handitzea, soldaten galera, behin-behinekotasuna... Prozesu horretan, gobernu ezberdinak soberania kapitalaren eta enpresa-handien eskuetan uzten joan dira.

Orain arte aipatu dugun guztiaren baitan kokatzen da Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena (ingelesez TTIP).

Proiektua zer den, zein helburu dituen eta zergatik sortzen den Landeia honetan bertan irakurri dezakezue, nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarrik idatzitako iritzi artikuluan. Beraz, ez gara lerrootan errepikatuko TTIP zer den azaltzen. Dena den, badira aipatu gabe utzi ezin diren hainbat gauza.

Negoiazio prozesuek agerian uzten duten kapitalk guztiz gailendu zaiola politikari, zentzu guztietan. Aipatu dugun fenomeno honen adierazle argia da TTIP. Demokraziaren -edo, bizi dugun uestezko demokrazia honen- hondamendiaren atarian kokatzen gaitu akordio honek. Izan ere, akordioa dagoenetan gauzatu-ko balitz, multinazional batek estatu bat salatu ahal izango luke baldin eta bere interesen aurkako legeren baten bidez bere jardura mugatu nahi izango balu. Finean, multinazionalen interesak estatutuen legediaren gainetik leudeke. Izugarria.

Eta, berriz diogu, hau guztia posible da kapitalk -eta patronalk- handituta dagoelako. Bestela ezinezkoa litzateke ere

Esto sucede porque el capital se ha apoderado de la política. Pocos optan por enfrentarse, y a quien se atreve, lo intentan destruir

La máquina destructora del capitalismo ha acelerado el ritmo desde la caída del muro de Berlín; no tiene freno, está desatada

Confebaskek gogoko ez duen sindikal-gintzarekin amaitzeko egin duen azken ahalegina. Horrelako proposamenak soilik dira posible jakin dakizunean botere politikoaren babesa duzula. Gure agintariek nahi duten guztia ematen diote patronalari. Eta, aseezinak direnez, beti nahi dute gehiago. Ez dute mugarik. Ezin dute jasan euren pribilegioen kontra dagoen ezer. Paretik kendu nahi gaituzte, ez diegularako men egiten, aurre egiten diegularako.

Gaizki ohituak daude. Zerbaitek enbarratu egiten dienean berehala erosten saiatzen dira. Uste dute bizitzan dena merkantzia dela, dela erosi litekeela. 'Zenbat nahi duzu? Har itzazu sosak eta ospa, isildu'. Baina horrek beti ez du funtzionatzen. Batzuetan erosi ezin dezakezun fenomeno batekin egiten duzu topo. Kasu honetan Euskal Herriko milaka langilez osatutako erakunde bat, sindikatu bat, ELA. Independentea. Autonomia. Patronalari eta kapitalaren interesei aurre egiten diena.

Testuinguru horretan ulertu behar dira gaur egun gertatzen diren gauza gehienak.

Kronika honen hasieran aipatu dugu Berlingo Harresia erori zenean oso zaila zela diskurtso neoliberal hegemonikoaren olatutik ihes egitea. Eta zentzu askotan horrela izaten jarraitzen du, batez ere Europan. Zorionez badira olatu horretatik ihes egin duten herrialdeak, gehienak Hego Amerikan, baina Europan ia ezinezkoa izan da orain arte, tokian tokiko salbuespenekin. Bertan bizi garenonatz bereziki larria da ikustea nola Europak -Europar Batasunak- men egin dien Ameriketako Estatu Batuen eta kapitalaren interesei.

Ameriketako Estatu Batuetako hegemonia gero eta hauskorragoa da, hegemonia hori partekatzeraz derrigortuko duten potentzia berrien agerpena hor dagoelarik, Txina bereziki. Baina, noski, horrek ez du esan nahi oraindik ere potentzia hegemoniko nagusia ez denik, eta benetako mundu multipolar baten prozesua oraindik luze joko ez duenik. Eta, gainera, zantzu gutxi daude adierazteko etorkizunean Europar Batasuna bere txotxongilo izaten jarraituko ez duenik. Baina, bitartean, bestelako mundu eta gizarte-eredu bat amesten dugun guztiok borrokatzen jarraitu beste erremediorik ez dugu. Eta horretan jarraituko dugu.

“Hay que mantener la tensión”

TXEMA LAISEKA, RESPONSABLE DE ELECCIONES SINDICALES, VALORA POSITIVAMENTE LOS RESULTADOS ALCANZADOS DURANTE EL PERIODO CONCENTRADO Y ANIMA A MANTENER LA TENSIÓN, “PORQUE LOS ÚLTIMOS ACONTECIMIENTOS REFLEJAN LO IMPORTANTE QUE ES QUE ELA SIGA SIENDO EL SINDICATO MAYORITARIO DE EUSKAL HERRIA



› N.ISPIZUA

Son fechas complicadas para Txema Laiseka, responsable de elecciones sindicales de ELA.

Sin embargo, se muestra satisfecho con los resultados que el sindicato ha obtenido hasta el momento -se confirma que seguimos siendo el sindicato ampliamente mayoritario- aún a sabiendas de que todavía hay muchos delegados/as en juego. Por ello, no deja de animar al conjunto de la militancia a que mantenga la tensión empresa por empresa.

¿Qué valoración haces del proceso electoral, cerca ya del final del periodo concentrado de elecciones sindicales?

-Estamos cumpliendo los objetivos. En septiembre hemos conseguido el 61% de todos los delegados/as que se han votado; en octubre, el 54%. En noviembre se han elegido 1.240 delegados/as y

hemos obtenido 585; es decir, el 47,18%...

En resumen, a la vista de los datos, por un lado seguimos manteniendo nuestra altísima representatividad en las pymes, un hecho vital pensando en el objetivo de sindicalizar las empresas y organizarnos para poder negociar el mayor número de convenios con los mejores contenidos posibles. Y por otro, en las empresas de comité hemos repetido resultados en ámbitos con representación ya muy alta; incluso mejorándola en muchos casos.

Si bien es cierto que la mayoría de esos delegados/as ya eran nuestros no hay que restar trascendencia a estas cifras: cada proceso electoral es distinto y todos partimos de cero; es un partido nuevo en el que puede pasar cualquier cosa.

¿Estamos notando la elección de menos delegados/as debido al cierre de empresas o la destrucción de empleo?

-Sí. Un dato significativo que podemos aportar ya es que en este periodo se han elegido 1.000 delegados/as menos. Aparte de la lectura dramática en términos de empleo que este dato refleja, no podemos obviar que en términos elec-

Gauzak dauden moduan daudela, ELA bozkatzeak berebiziko esangura du

Ordezkarri asko eta onak lortzea giltzarria da, gure lan-baldintzen geroa enpresan bertan erabakiko baita

torales a quién mayor afecta es al sindicato mayoritario.

-¿Qué esperas que pase en diciembre?

-Esperamos seguir cumpliendo las previsiones. Teniendo en cuenta que hasta el momento ha sido así, esperamos que la tendencia continúe y que los/as trabajadores/as sigan apoyando de manera mayoritaria el proyecto sindical de ELA. Un proyecto elaborado desde la absoluta independencia política y económica y al servicio de la clase trabajadora vasca y de un modelo de sociedad más justo y solidario.

-¿La clave?

-Para ello es fundamental huir de triunfalismos o relajarnos; tenemos que mantener la tensión hasta el último momento. El día de las elecciones nuestros militantes en las distintas empresas tienen que conseguir que vote el mayor número de personas posible a nuestra lista. Tenemos que tener el chip de que cada voto es el decisivo, porque no sería la primera vez que se gana o pierde un delegado/a por un sólo voto.

-Resulta como poco paradójico que el sindicato que supuestamente “ha abandonado a los trabajadores/as de las pymes a su suerte al renunciar a los convenios sectoriales... bla, bla, bla...” obtenga un apoyo tan abrumador.

-Es evidente que la reforma de la negociación colectiva -que convertía el convenio sectorial en un referente y no un mínimo, otorgando al convenio de empresa el protagonismo- ha supuesto la quiebra del sistema de relaciones laborales que conocíamos. Ante un hecho que nos ha venido impuesto, la decisión de ELA ha sido explicar que la única opción que nos dejan es sindical-



ETEetako jendeak egunero ikusten gaitu enpresa txikietan lanean; horregatik, patronalaren, gobernuaren eta beste sindikatuen gaitzespenak eta guzti, ETE gehienek hautatzen gaituzte

zar las empresas y blindar nuestras condiciones con convenios de empresa. Tenemos alternativa. No es fácil pero es la única ELA lleva ya un par de años trabajando este camino. La gente de las pymes lo está viendo día a día, empresa a empresa; por eso, a pesar de las descalificaciones de patronal, gobierno y otros sindicatos, no están apoyando de manera mayoritaria.

-Sin duda, la coyuntura hace especiales estas elecciones.

-Todo proceso electoral es muy importante. Pero éste lo es más por la coyuntura en la que nos encontramos. Necesitamos tener los y las mejores militantes y la mayor representación posible en todas y cada una de las empresas porque el futuro de nuestras condiciones laborales se va a decidir allí.

-Es mucho lo que está en juego.

-Así es. Hemos visto recientemente cuáles son los deseos de la patronal: eliminarnos. Cuanto más fuertes seamos más difícil se lo pondremos. Tal como están las cosas, votar a ELA tiene un significado añadido.

ELA se ha marcado un objetivo muy importante, que no es otro que la defensa colectiva de la clase trabajadora.

Zantzu guztien arabera ELAk jarraituko du izaten, alde eder batez, Euskal Herriko sindikatu nagusia

El mensaje que me gustaría trasladar a nuestros liberados/as y militancia en las empresas es doble: por un lado, felicitarles por el trabajo que están haciendo; por otro, insistir en que no nos podemos despidar. El futuro de nuestras condiciones laborales se va a decidir en las empresas, y a día de hoy ELA es el único sindicato que se está preparando para ello.

-Comentaba antes que estas elecciones se producen en una coyuntura de crisis muy dura en la que gobierno, patronal y otros sindicatos han encontrado en ELA su particular chivo expiatorio. ¿Se está notando esto en el desarrollo del proceso electoral?

-Nuestra gente en las empresas se enfrenta a muchas zancadillas y obstáculos, presiones... Hay empresas en las que todavía tenemos problemas para poder presentar candidatura porque la gente tiene miedo... Nunca ningún proceso electoral ha sido fácil, aunque sí es cierto, por ejemplo, que ha habido un aumento importante de las llamadas listas independientes, no sólo en el colegio de técnicos, que es donde más habituales eran hasta ahora.

En las empresas con dinámica sindical consolidada, por su parte, el proceso electoral se está desarrollando con normalidad y alta participación. Y esperamos que siga siendo así, porque estamos faltos de democracia, y no sólo en las empresas.

BOTORIK BOTO

Imanol Paskualek, hauteskunde sindikalen Nafarroako arduradunak, erresuma zaharreko erritmoa honela laburbildu digu: "Hauteskundearen aldi trinkoa Nafarroan ekainera arte luzatuko bada ere, azken hilabete hauek oso beteak izan dira. ELArentzat aldi trinkoaren gunea urria eta abendua bitartean egon da, bitarte horretan berritu beharreko ordezkarien %30 gureak ziren".

Eragozpenak eragozpen, Paskualek ontzat jotzen du hauteskunde sindikalen Nafarroako bilakaera. "Ordezkaritza asko galdu dugu itxierak edo errola-jaitzierak direla-eta; baina, hala ere, galera horiek berdintzen lortzen ari gara, ordezkariarik ez geneukan batzordeetan sartuz eta ELA-ordezkaririk ez zegoen ETEetan aurkeztuz" azaldu digu. Alde horretatik, Paskualen iritziz "Nafarroako langile guztien zati handi bat konturatzen hasita dago lan-erreforma lantokietatik kanporatzeko aukera bakarra ELA dela", eta horren isla aldi trinko honetan nabarmentzen ari da.

Azkenik, Paskualek militante guztiak bultzatzen ditu hauteskundeak lantzen jarraitzea. "Gure azken emaitzak, neurri handi batez, gure lan egiteko ahalmenaren ondorio izango dira; izan ere, bozketak bakoitzaren plangintza alde aurretik antolatzeke dugun ahalmenaren arabera izango da emaitza" borobildu du.



Una imagen poco habitual ante un hecho excepcional: la ejecutiva de ELA casi en pleno (faltaban dos de sus miembros) valorando y respondiendo al documento de Confebask en el que solicitan la ilegalización de nuestro sindicato.

